

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

2007ko ekitaldiaren emaitza garbiak 3.188 milioi euroak gainditzen ditu

Ikuskatu gabeko kopuruak (FINA)

4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	aldakuntza %-tan 4. H 07 / 4. H 06	2007ko laugarren hiruhileko emaitzak	2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
KONTABILITATE EMAITZA (Milioi euro)							
845	1.420	1.541	82,4	OPERAZIOEN EMAITZA	5.911	5.808	-1,7
473	742	740	56,4	EMAITZA GARBIA	3.124	3.188	2,0
PROFORMA ADIERAZLEAK (Milioi euro)							
974	1.299	1.362	39,8	EGOKITUTAKO ERAGIKETEN EMAITZA	5.776	5.486	-5,0
547	670	650	18,8	EGOKITUTAKO EMAITZA GARBIA	3.092	2.957	-4,4
ETEKINA AKZIOKO							
0,39	0,61	0,61	56,4	Euro akzioko	2,56	2,61	2,0
0,51	0,86	0,89	74,5	Dolar akzioko	3,37	3,84	13,9

2007KO LAUGARREN HIRUHILEKO DATURIK AIPAGARRIENAK

- 2007ko laugarren hiruhilekoan, **operazioen emaitza doitua dolarretan % 56,3** (eurotan % 39,8) handitu zen, 2006ko hiruhileko berarekin konparatuta; urteko zenbatekoei erreparatuz, hazkundea % 6,2koa izan da (eurotan % -5,0koa). Dolarra euroa baino ahulagoa izatean, operazioen 139 milioi euroko doitutako emaitza txikiagoa izan da.
- Petrolio gordinaren **ekoizpen-kostuak** zein finketaren marjinak Espainian hobetu egin dira.
- **2007ko laugarren hiruhilekoan ekoizpena**, termino homogeneotan % 2,2 murriztu da, urte osoan aurreko urteko mailari eutsi badio ere. Nabarmendu behar da, Libian ekoizpena gehitzean, Argentinako zenbait eremuetako beherakadak konpentsatzen dituela. Hiruhileko horretan, Repsol YPF Mexikoko Golkoko Genghis Khan eremuan lanean hasi zen.
- Hiruhilekoan 544 milioi euroko **desinbertsioak** egin dira, konpainiaren portfolioa optimizatze aldera. Urte osokoak 1.279 milioi eurokoak dira.
- Konpainiaren finantza-egoera ere nabarmen hobetu da, eta **zorra** 3.493 milioi eurokoa da.
- Urtarrilaren 15ean, Repsol YPF-k 0,50 euro gordin ordaindu zituen akzioko **dibidendu** gisa 2007ko ekitaldiagatik. Zenbateko horrek % 39ko hazkundea izan zuen, aurreko ekitaldiko dibidenduaren ondoan.
- Joan den otsailaren 21ean, Petersen taldeak YPF SA-ren akzioen **% 14,9 erosi zuen**, 2.235 milioi dolarretan. Ondorioz, Taldeak 2008an 300 milioi euro inguru irabaziko ditu. Repsol YPF Taldeak Argentinako sozio handi bati atea irekitzeko estrategiaren barruan dago eragiketa. hala, konpainiaren jarrera indartuko baita Argentinako hidrokarburoen sektoreko erronken eta aukeren aurrean.

1.- JARDUERA BAKOITZEKO EMAITZEN ANALISIA

1.1.- ESPLORAZIOA ETA EKOIZPENA

Ikuskatu gabeko kopuruak (FINA)

4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 4. H 07 / 4. H 06		2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
396	791	895	126,0	OPERAZIOEN EMAITZA (Milioi euro)	3.286	2.968	-9,7
575	842	959	66,8	ERAGIKETEN EMAITZA DOITUA (Milioi euro)	3.628	3.083	-15,0
515,9	462,1	468,5	-9,2	GORDIN ETA LIKIDOEEN EKOIZPENA (Mila upel/egunear)	525,2	482,7	-8,1
3.286	3.164	2.885	-12,2	GAS EKOIZPENA (Milioi scf/egun)	3.387	3.125	-7,7
1.101,1	1.025,7	982,4	-10,8	EKOIZPENA GUZTIRA (Mila upel/egunear)	1.128,3	1.039,2	-7,9
676	702	728	7,7	INBERTSIOAK (Milioi euro)	4.062	2.912	-28,3
168	79	184	9,5	esplorazio kostu batzuk (Milioi euro)	377	480	27,3

4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 4. H 07 / 4. H 06		2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
59,68	74,75	88,45	48,2	NAZIOARTEKO KOTIZAZIOAK (\$/bbl)	65,14	72,39	11,1
62,92	75,15	90,50	43,8	Brent	66,24	72,37	9,3
				WTI			

4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 4. H 07 / 4. H 06		2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
42,33	54,38	59,00	39,4	ERREALIZAZIO PREZIOAK	46,29	49,84	7,7
2,46	1,69	2,34	-4,9	LIKIDOAK (\$/Bbl)	2,16	2,15	-0,5
1,91	1,34	1,97	3,1	GASA (\$/Milaka scf)	1,63	1,66	1,8
				GASA Argentinan (\$/Milaka scf)			

1.000 Mscf/d = 28,32 Mm³/d = 0,178 Mpub/e

Kimika eremuko **eragiketen emaitza**, 2007ko laugarren hiruhilekoan, 959 milioi eurokoa izan zen; 2006ko epe berean, aldiz, 575 milioi eurokoa. Hiruhileko emaitzetan hurrengo faktoreek izan dute eragina batez ere:

- Dolarraren prezioa euroarena baino % 11 gutxiago izatean hiruhileko honetan, emaitza doitua 94 milioi txikiagoa izan da.
- Prezioen aldakuntzari dagokionez, hiruhileko bolumenek eta kontratuen aldaketek aurreko urtean baino 640 milioi euro gehiago irabazi dituzte.
- Kostuen hazkunde orokorregatik *lifting costak* 93 milioi euro areagotu dira. Inbertsio handiagoaren ondorioz, era berean, amortizazio teknikoak aurreko urtean baino 68 milioi euro gehiago izan ziren eta ustiapen jarduerak 65 milioi euroko gastu handiagoa eragin du.

Ekoizpen-mailak, Dubaiko (20,1 kpub/e) eta Boliviako (71,2 kpub/e) kontraktu-aldaketengatik eta Venezuelako espezetan erregalien ordainketari buruzko irizpidearen aldaketagatik (3,1 kbep/e), aurreko urteko laugarren hiruhilekoan baino % 2,2 gutxiago izan dira. Murrizketa nabariena Argentinan (% 4,6) izan da, nahiz eta horren zati bat Magallaneseko oliobidea apurtzearen ondoriozkoa izan den. Gertaera hori kontuan hartzen ez bada, Argentinako ekoizpenak % 3,2ko murrizketa izan zen. Bestalde, munduko gainerako tokietan ekoizpena % 1,3, batez ere, Libian (6,1 kbb/e) bere garaian NC-186 blokeko B eta H eremuetan egindako aurkikuntzengatik.

Metatutako emaitzak

2007ko ekitaldiko **eragiketen emaitza** 3.083 milioi eurokoa izan zen; aurreko urteko epe berean, aldiz, 3.628 eurokoa. Venezuela kontuan izan gabe, eragiketen emaitza doituak ondokoan ondorioz jaitzi dira:

- Dolarraren prezioa euroarena baino % 8,4 gutxiago izatean, emaitza doituak 285 milioi txikiagoa izan da.
- Petrolio gordinaren prezioak hobetzean, jarduerak Argentinako zenbait eremuetako murrizketa konpentsatu du, eta emaitza doituak 477 milioi eurotan hobetu du. Bestalde, Dubain operazio kontratua eteteak eta gainerako kontratuetako aldaketek emaitza 119 milioi eurotan gutxitu dute, nahiz eta ia eraginik ez duen izan emaitza garbian.
- *Lifting costak* 277 milioi euro handiagoak izan dira. Inbertsio handiagoaren ondorioz, amortizazio teknikoak 155 milioi euro gehitu ziren.
- Esplorazioko-jarduera nabarmen handitu aurreko ekitaldikoarekin alderatu, beraz, esplorazioko gastuak 174 milioi euro areagotu dira.

Ekoizpen-mailak Dubaiko (16,2 kpub/e), Venezuelako (12,1 kpub/e) eta Bolivia (48,5 kpub/e) kontratuen aldaketengatik aldatu dira, baina 2007an aurreko urtekoen antzerakoak izan dira, eta % 1 besterik ez dira txikitu. Murrizketa nabariena Argentinan (% 4) izan da, nahiz eta horren zati bat Magallaneseko oliobidea apurtzearen ondoriozkoa izan den. Gertaera hori kontuan hartzen ez bada, Argentinako ekoizpenak % 2,6ko murrizketa izan zuen. Bestalde, munduko gainerako herrialdeetan ekoizpena % 3,3 handitu da, batez ere, Brasilen (9,8 kpub/e), Trinidad eta Tobagon (4,9 kpub/e) eta Libian (3,7 kpub/e).

2007 ekitaldiko laugarren hiruhilekoan, Esplorazio eta Ekoizpen arloan, **inbertsioak** 728 milioi eurokoak izan ziren, Garapeneko inbertsioak inbertsio osoaren % 57 izan ziren, eta bereziki, Argentinan (% 59), AEBetan (% 15) eta Trinidad eta Tobagon (% 15) egin dituzte.

2007 ekitaldian, Esplorazio eta Ekoizpen arloan, inbertsioak 2.912 milioi eurokoak izan ziren, Inbertsioak, batez ere, Mexikoko Golkoko Genghis Khan eremuaren % 28 erostera, Canaporten birgasifikazio-planta eraikitzen eta Peru LNG proiektura bideratu dira.

1.2.- FINTZEA ETA MARKETINA

Ikuskatu gabeko zenbatekoak (Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauak)

4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 07ko 4. H / 06ko 4. H		2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
244	364	689	182,4	OPERAZIOEN EMAITZA (Milioika euro)	1.855	2.358	27,1
281	389	355	26,3	ERAGIKETEN EMAITZA DOITUA (Milioika euro)	1.812	2.045	12,9
14.951	15.902	15.362	2,7	PETROLIO-PRODUKTUEN SALMENTA (Milaka tona)	58.732	61.467	4,7
955	831	1.001	4,8	GLP SALMENTAK (Mila tona)	3.725	3.793	1,8
474	202	386	-18,6	INBERTSIOAK (Milioika euro)	966	974	0,8
4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 07ko 4. H / 06ko 4. H	FINTZE MARJINAREN ADIERAZLEAK (\$/upele)	2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
4,39	5,26	5,99	36,4	Espainia	5,55	6,39	15,1
8,65	8,76	8,29	-4,2	ABB	8,88	10,27	15,7
5,69	5,89	6,30	10,7	Repsol YPF	6,36	7,21	13,4

2007ko laugarren hiruhilekoan **operazioen emaitza doitu**a 355 milioi eurokoa izan zen, 2006ko epe berarekin alderatuta, % 26,3 gehiago. Emaitza hori azaltzen duten faktore nagusiak honako hauek dira:

- Dolarrak euroarekiko izandako balio-galerak emaitza okertu egin du 38 milioi eurotan.
- Fintze marjinaren 0,6 \$/upeleko hazkundera, destilakin ertainen indarraren ondorio, destilatu maila txikiagoarekin konpentsatu da partzialki (% -3,7) mantentze geldione programatuak direla-eta. Horrek guztiak operazioen emaitzen 40 milioiko hazkundera ekarri du, gutxi gorabehera.

Puertollano eta Bilboko findegien programaturiko geldioneek, 33 eta 47 egun hurrenez hurren, hiruhileko horretako destilazio maila txikiagoa izan zedin lagundu zuten, aurreko urteko epe berarekin alderatuta.
- Birjartzeen prezioen diferentzialak salmenta kostuan (CCS) eta MIFO sistemak 174 milioi euroko eragin positiboa izan dute hiruhilekoen arteko eraketan.
- Merkataritza jardueren marjina-bolumena nahasketaren portaerak eragin negatiboa izan du emaitzan, 79 milioi euro murriztu baitu, batez ere, amaierako produktuei petrolioaren prezioaren hazkundera eramateko zailtasuna dela-eta.
- GLPk Espainian garaturiko jardueri dagokienez, nazioarteko kotizaziorik handienek komertzializazio marjina txikitu dute, eta, ondorioz, marjina-bolumena nahasketak emaitza 31 milioi eurotan murriztu du, nahiz eta bolumenak hobera egin.
- Garaturiko gainerako jarduerak, industriako kostuen hazkunde orokorra, periodokatzea eta inpaktu txikiagoko beste eragin batzuk, aldien arteko gainerako desberdintasunak azaltzen dituzte.

Hiruhilekoan, CLHren akzioen % 10 saltzearen ondorioz, emandako datuetan 315 milioi euro erantsi dira.

Metatutako emaitzak

2007ko ekitaldiko **operazio doitu**en emaitza 2.045 milioi eurokoa izan zen, 2006ko ekitaldikoa baino % 12,9 handiagoa. Emaitza hori azaltzen duten faktore nagusiak honako hauek dira:

- Fintze marjinaren 0,9 \$/upeleko hazkunderak, gasolinaren eta gasolioaren *spread*en indarraren ondorio, destilazio maila handixeagoari (% 1,4) batuta, operazioen emaitzak 240 milioi eurotan handitu ditu, gutxi gora behera.



- Birjartzeen prezioen diferentzialak salmenta kostuan (CCS) eta MIFO sistemak 85 milioi euroko eragin positiboa izan dute hiruhilekoen arteko erkaketan.
- Merkataritza jardueren eta GLPren marjina-bolumena konbinazioaren portaerak eragin positiboa izan du emaitzan, eta 91 milioi eurotan handitu du.
- Dolarrak euroarekiko izandako balio-galerak emaitza okertu egin du 146 milioi eurotan.
- Garaturiko gainerako jarduerak, industriako kostuen hazkunde orokorra, periodokatzea eta inpaktu txikiagoko beste eragin batzuk, aldien arteko gainerako desberdintasunak azaltzen dituzte.

Inbertsioak, Fintze eta Marketin arloan 2007ko ekitaldian eginikoak, 386 eta 974 milioi eurora iritsi ziren, hurrenez hurren, eta batez ere jadanik hasi diren fintze proiektuetara bideratu dira, baita hobekuntza operatiboak eta instalazioen, segurtasunaren, ingurumenaren, erregaien kalitatearen eta bihurketa hobekuntzak egitera ere.

1.3.- KIMIKA

Ikuskatu gabeko zenbatekoak (Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauak)

4. H 2006	3.H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 07ko 4. H / 06ko 4. H		2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
145	44	17	-88,3	OPERAZIOEN EMAITZA (Milioika euro)	353	231	-34,6
89	44	17	-80,9	ERAGIKETEN EMAITZA DOITUA (Milioi euro)	299	231	-22,7
1.149	1.133	1.440	25,3	PRODUKTU KIMIKOEN SALMENTAK (Mila tona)	4.778	4.926	3,1
94	44	55	-41,5	INBERTSIOAK (Milioika euro)	222	176	-20,7
4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 07ko 4. H / 06ko 4. H	NAZIOARTEKO MARJINEN ADIERAZLEAK	2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
684	524	384	-43,9	Cracker (Eur/ton)	529	488	-7,8
347	364	346	-0,3	Europako deribatua (Eur/ton)	349	353	1,1
335	254	464	38,5	Latinoamerikako deribatua (USD/ton)	265	333	25,7

Adierazlee lehengaiaren gaineko marjinak irudikatzen dituzte, eta produktu petrokimikoen nazioarteko prezioetan oinarrituta daude erreferentziako merkatuetan. Adierazle horiek Repsol YPF-ren dokumentu-zorro kimikoaren produktu esanguratsuenak hartzen dituzte barnean, eta ekoizpen-instalazioen ahalmen nominalaren arabera neurtzen dira.

2007ko laugarren hiruhilekoan **operazioen emaitza doitua** 17 milioi eurokoa izan zen, 2006ko epe berarekin alderatuta, % 80,9 gutxiago.

Oinarritzko kimikaren portaerarik okerrenak -hiruhilekoan ia erdiraino murriztu da- hiruhilekoan izandako emaitzaren bilakaera justifikatzen du; 2007an erregistratutako salmenta handiagoak izanagatik ere (gogoratu Sineseko konplexuaren geldiera 2006an) eta Argentinako gas naturalaren disonibilitatearekin lotutako urea eta metanol jarduerengatik ere.

Oinarritzko kimikaren marjinak erori izanaren arrazoiak naftaren prezioak izan dira. Prezio horiek petrolioaren eraginez garestitu dira, eta horrek, gainera, energiak ere garestitu egin ditu.

Azaroan urtean 190 kt bentzeno ekoizten duen planta berria ipini dute martxan Tarragonako konplexuan.

Metatutako emaitzak

2007ko ekitaldiko **operazio doituen emaitza** 231 milioi eurokoa izan zen, 2006an lortutakoa baino % 22,7 handiagoa.

Azkeneko hiruhilekoko emaitzak behera egin izana oinarritzko kimikaren marjina izan da. Era berean, eragileetako beste bat Argentinan jarduera gutxiago izatea da, hirugarren hiruhilekoan gas naturalaren hornidura murriztu egin zutelako.

2007ko laugarren hiruhilekoko **inbertsioak** 55 milioi eurokoak izan ziren, eta 176 milioi eurokoak aurreko ekitaldian.

1.4.- GASA ETA ELEKTRIZITATEA

Ikuskatu gabeko kopuruak (FINA)

4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 07ko 4.H / 06ko 4.H		2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
108	123	125	15,7	ERAGIKETEN EMAITZA (Milioika euro)	469	516	10,0
106	123	125	17,9	ERAGIKETEN EMAITZA DOITUA (Milioi eurotan)	398	492	23,6
92	99	430	367,4	INBERTSIOAK (Milioika euro)	328	651	98,5

Laugarren hiruhilekoaren **eragiketen emaitza doitu** 125 milioi eurokoa izan zen; aurreko urteko epe berean, aldiz, 106 milioi eurokoa. Hortaz, % 17,9ko gehikuntza izan da.

Nabarmenezkoa da Espainiako banaketa jardueraren emaitzek izandako hazkundera, baita Espainian gasa merkaturatzeak izandakoa ere. Elektrizitate jardueraren emaitzak aurreko hiruhilekoan izandako berreskuratze maila bera ageri dute, *pool* prezioek duten hazkunderari esker.

Espainiako gas banaketaren emaitzak Gas Natural SDG-ri aintzatetsitako ordainsariaren arabera bilakatuko dira 2007ko ekitaldirako.

Latinoamerikako emaitza, batez ere, Brasilgo banaketaren portaerak markatuta dago. Emaitza onak izan dira, dolarrak eta tokian tokiko monetek balioa galdu dutelako euroaren aurrean.

Gas naturala Espainian merkaturatzeak portaera oso mesedegarria ageri du. Hobekuntza hori konpainiak jarraitutako ildo komertzialaren ondorio da, alegia, merkatu liberalizatuan gas kontratuen zorroa eta merkatuaren egungo baldintzetara egokitutako prezioaren politika optimizatzearen ondorioa.

Metatutako emaitzak

2007ko ekitaldian, **egokitutako eragiketen emaitza** 492 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean, berriz, 398 milioi euro. Horrek esan nahi du emaitza % 23,6 handitu dela, Espainian gasa merkaturatzeak emandako emaitzak handitu egin direlako.

2007ko laugarren hiruhilekoan egindako Gas eta Elektrizitate **inbertsioak** 430 milioi eurokoak izan ziren. 2007ko ekitaldiko zifrak 651 milioi eurokoak dira, 2006ko ekitaldian baino askoz ere gehiago. Nabarmenezkoa da, era berean, 2007 amaiera aldera EDFrekin kidetutako ziklo konbinatuko bost zentral eta gasoduktu bat eta Mitsubishi erosi izana Mexikon. Operazioak 1.448 milioi dolar balio izan ditu. Gainontzeko Inbertsioak Espainian banaketa-jarduerara eta Elektrizitatea sortzeko proiektuetara zuzenduak izan dira bereziki.

1.5 KORPORAZIOA ETA BESTE BATZUK

Epigrafe honek Korporazioko gastuak eta negozioiei inputatu gabeko jarduerak biltzen ditu. Hiruhileko honetan, emaitza doitu negatiboa izan da: 94 milioi euro, eta 2006ko laugarren hiruhilekoan 77 milioi euro.

2007ko ekitaldian, emaitza doitu negatiboak 365 milioi eurokoak izan ziren; 2006koan, aldiz, 361 milioi eurokoak.

2006an errepikatzen ez den kontzeptu nagusia Boliviako Andinaren prezioak estaltzeko kontratuta ezeztatzeagatik izandako diru-sarrera da; hots, 298 milioi euro. Bestalde, 2007ko ekitaldian Madrilgo Castellana pasealekuko lursailak saldu izanagatik lortutako plusbaliak biltzen ditu: 211 milioi euro.

2.- EMAITZA FINANTZARIOA, ZORPETZEA ETA INBERTSIOAK

Ikuskatu gabeko kopuruak (FINA)

ZOR GARBIAREN BILAKAERA (Milioi euro)	07KO 3.H	07KO 4.H	Aldakuntza %-tan 07ko 4.H / 06ko 3.H	2007ko urtarrila- abendua
ZOR GARBIA EPEALDIAREN HASIERAN	4.500	3.936	-12,5	4.396
EBITDA	-2.107	-2.192	4,0	-8.573
MERKATARITZA MANIOBRAREN FUNTSAREN ALDAKETA	-180	83	-146,1	582
INBERTSIOAK (1)	1.149	1.719	49,6	5.079
DESINBERTSIOAK	-599	-543	-9,3	-1.273
DIBIDENDUAK (afiliatutako sozietateena barne)	437	28	-93,6	949
Truke-tasa efektuak	-216	-139	-35,6	-464
ORDAINDUTAKO ZERGAk	631	483	-23,5	2.157
BESTE MUGIMENDU BATZUK	321	118	-63,2	640
ZOR GARBIA EPEALDIAREN AMAIERAN	3.936	3.493	-11,3	3.493
ZOR GARBIA + LEHENTASUNEZKOAK, EPEA IXTERAKOAN	7.409	6.911	-6,7	6,911

Zorpetze ratioa

ERABILITAKO KAPITALA (milioi eurotan)	26.738	26.073	-2,5	26.073
ZOR GARBIA/ ERABILITAKO KAPITALA (%)	14,7	13,4	-8,8	13,4
ZOR GARBIA + LEHENTASUNEZKOAK / ERABILITAKO KAPITALA (%)	27,7	26,5	-4,3	26,5

(1) Gainera, 294 milioi euroko finantza izaerako inbertsioak daude, hortaz, guztira, 5.373 milioi euroko inbertsioa sortuko litzateke (ikus taulak).

Konpainiaren zor garbia 2007ko laugarren hiruhilekoaren bukaeran 3.493 milioi euroan kokatu zen; 903 milioi euroko murrizketa izanda, 2006ko abenduari dagokionez.

EBITDAk xurgatu ditu denbora tarteko inbertsioak, 2006ko dibidenduak ordaintzea eta zergak ordaintzea. Gainera, dolarrak euroaren aldean balioa galdu duenez, zorra nominalki murriztu egin du, zorra gehienetan eurotan izendatua baitago (464 milioi euro).

Erabilitako Kapitalaren Zor Garbiaren ratioa 2007ko abenduan % 13,4koa da. Kontuan hartuta ekintza preferenteak, ratio hori % 26,5koa da.

2007ko ekitaldiko finantzaketa emaitza 224 milioi euroko gastua izan zen; 2006ko ekitaldian, aldiz, 482 milioi eurokoa. Murrizketa hori ondokoen ondorioa da:

- Interes garbiengatik finantzaketa gastu txikiagoa izan zen, 57 milioi euro; horren arrazoiak, batez besteko zorpetzea 839 milioi euro murriztea eta finantzaketa inbertsioen errentagarritasuna handitzea.
- 60 milioi euroko inbertsio handiagoa, Upstreameko aktiboetan interes gehiago kapitalizatu delako.
- Deribatuak eta Hornidurak epigrafean 93 milioi euro gehiago sartu dira, 67 milioi euroko inbertsioa gertatu zelako. Finantzaketa deribatuen merkatuetako balorazioen bilakaera mesedegarria erakusten du horrek, euroaren interes tipoak igo direlako. Eta 26 milioi euro gehiago sartuko dira, horniduren desinbertsioa dela eta.
- Efektu positiboa trukaketa diferentzietan, 91 milioi euro, Brasilgo moneta eta dolarraren apreziazioa dela eta.

Ikuskatu gabeko kopuruak (FINA)

4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 07ko 4.H / 06ko 4.H	Finantza-emaiza (Milioi euro)	2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
72	72	73	1,4	INTERES GARBIAK	359	302	-15,9
49	49	49	-	LEHENTASUNEZKO AKZIOEN ORDAINKETA	189	191	1,1
-4	-13	-11	175,0	INTERKALARIOAK	-35	-95	171,4
6	45	25	316,7	DERIBATUAK ETA HORNIDURAK	93	-	-
-18	-95	-51	183,3	ALDAKETA DESBERDINTASUNAK	-175	-266	52,0
-10	14	22	-320,0	BESTELAKO DIRU-SARRERAK / GASTUAK	51	92	80,4
95	72	107	12,6	GUZTIRA	482	224	-53,5

3.- EMAITZEN KONTUKO BESTE EPIGRAFE BATZUK

3.1.- ETEKINEN GAINEKO ZERGA

2007an sortutako sozietate-zerga 2.338 milioi eurokoa izan zen. Ezarritako tipo eraginkorra % 41,9koa izan da. 2006. urteko zerga-mota eraginkorra % 40,9koa izan zen.
2007ko laugarren hiruhilekoan sortutako zerga 693 milioi eurokoa izan zen.

3.2.- PARTAIDETUTAKO SOZIETATEEN EMAITZA

Ikuskatu gabeko kopuruak (FINA)

4. H 2006	3. H 2007	4. H 2007	Aldakuntza %-tan 07ko 4.H / 06ko 4.H	SOZIETATE PARTAIDEEEN BANAKAPENA (Milioi euro)	2006ko urtarrila- abendua	2007ko urtarrila- abendua	07/06ko aldakuntza %-tan
9	8	8	-11,1	E&E	53	44	-17,0
58	11	25	-56,9	F&M	84	61	-27,4
-	1	-	-	KIMIKA	2	2	-
-1	1	-	-	G&E	-	2	-
66	21	33	-50,0	GUZTIRA	139	109	-21,6

3.3.- KANPOKO BAZKIDEAK

Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza, 2007ko laugarren hiruhilekoan, 34 milioi eurora igo zen; 2006ko laugarren hiruhilekoan, aldiz, 13 milioira igo zen.

4.- GERTAKARI AIPAGARRIAK

2007ko hirugarren hiruhilekoko emaitzak argitaratu zirenetik, ondoko gertaera garrantzitsuak izan ziren:

Esplorazioan eta ekoizpenean: Repsol YPF-k 2007ko abenduaren 7n Bolivian gasa aurkitu zuela azaldu zuen. Caipipendi blokearen iparraldeko Huacaya X-1 ustiapen hobian, Margarita eremua dagoen tokian, izan zen. Eremua Repsol YPF-k ustiatzen du. Horretarako, partzuergoa sortu zuen British Gasekin (biek % 37,5eko partaidetza dute) eta Panamerican Energyrekin (% 25eko partaidetza). Zulaketan 18 hilabete eman zituzten, eta 60 milioi dolarreko inbertsioa egin zuten. Huacaya X-1 putzuaren azken sakonera 4.800 metro izan zen. Huacaya X-1 aurkitu izana Boliviarentzat gas baliabideak areagotzea izan da, eta bere komertzialitatea ezartzeko balorazio tekniko eta ekonomiko gehigarriak egin beharko dituzte.



2008 urtarrilaren 14an Repsol-ek Perun gasa aurkitu zuela adierazi zuen, 57. blokeko Kinteroni X1 esplorazio putzuan, Cuzco departamentuan. Lehendabiziko ekoizpen probak egiten ari dira oraindik ere. Proba horien arabera, eguneko milioi bat metro kubiko gas emaria erregistratu dute (0,365 bcm/urtean), eta 198 metro kubiko hidrokarburo eguneko kidetuta (72.270 metro kubiko/urtean). Nahiz eta eskuragarri dauden datuen arabera oraindik ere ez dagoen definitzerik hobiaren baliabideak zein diren, egituraren dimentsioek 2TCF-ko bolumena izango dela adierazten dute (56 bcm). Repsol da Kinteroni X1 eremua ustiatuko duen partzuergoaren operadorea: % 53,84ko partaidetza du. Petrobrás etxeak ere badu partaidetza (% 46,16).

2007ko azaroaren 30ean Knutsen OAS Shipping ontzi-enpresak Repsol YPF eta Gas Natural etxeei beste metano-ontzi bat eman zien: Sestao-Knutsen. Ontziak 138.000 metro kubikoko edukiera du, eta Stream flotari batuko zaio; hots, gas natural likidotua garraiatzeko bi konpainia energetikoek duten sozietate partekatuari. Ontziaren fletamendua *time-charter* kontratu baten bidez egin dute, 25 urteko iraupenarekin (bost urteko denboraldietan luza daiteke). Biek batera egindako inbertsioak 161 milioi eurokoak dira. Repsol YPF (% 50) eta Gas Natural SDG (% 50) etxeek konprometitutako ordainketen egungo balioa ordezkatzeko dute.

Repsol YPF-k eta Gas Naturalek, Sonangol Gas Natural (SONAGAS), ENI, GALP eta EXXEM enprekin hitzarmena sinatu zuten 2007ko abenduan Angolan gas proiektu integratua garatzeko lehenengo lanei ekite aldera. Egungo proiektua gas erreserbak ebaluatzean oinarritzen da, gero, horiek garatzeko eta, hala badagokio, gas natural likidotu (GNL) moduan ustiatzeko beharrezko inbertsioak egiteko. Lanak 2008ko lehenengo hiruhilekoan hasiko dituzte. Repsol YPF-k eta Gas Naturalek, industria akordioaren esparruan, partzuergoaren % 20ko partaidetza daukate. Portugaleko GALPek, berriz, % 10 dauka, Italiako ENIk % 20, EXXEMek % 10 eta Sonangol Gas Naturalek % 40.

Finketan eta Marketinean, Abenduan Repsol YPF-k Deutsche Bank etxeari Hidrokarburoen Konpainia Logistikoaren (CLH) kapitalaren % 10 saldu zuen, 353 milioi euroren truke. Salmentaren ondoren, Repsol YPF-ren partaidetza CLHn % 15 da.

Repsol YPF-ko Administrazio Kontseiluak Cartagenako findegia handitzeko 3.200 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egitea onartu zuen 2008ko urtarrilaren 8an. Hala, findegia munduko modernoetako bat izango da eta ekoizpen-ahalmena bikoiztuko du; urtean 11 milioi tonakoa izango da, egunean 220.000 upelekoa. Proiektu honekin, % 50 baino gehiago destilatuko dituzte, batez ere gasolioak. Horrek modu esanguratsuan lagunduko du produktu horien defizita Espainian. Bestalde, Cartagenako proiektua garraioko erregai garbietara instalazioak egokitzeko, bioerregaien (biodiesela) erabilera bultzatzeko eta energiaren eraginkortasuna, segurtasuna zein ingurumenarekiko eragina hobetzeko Repsol-en programaren atal bat da.

Gasean eta Elektrizitatean, 2007ko abenduaren 28an, Gas Natural SDG etxeak bere gain hartu zituen EDFri erosita ziklo konbinatuko bost zentralak eta gasoduktua eta Mitsubishi Mexikon. Eragiketaren aktiboen balorazioa 1.448 milioi dolarrekoa da, eta Konpetentziaren Batzorde Federalaren, Elektrizitatearen Batzorde Federalaren eta Energia Arautzeko Batzordearen oniritzia jaso zuen. Mexikoko organo horiek arduratu ziren trantsakzioa ebaluatzeaz. Era berean, Frantziako Estatuaren Partaidetza Agentziaren Partaidetzen eta Transferentzien Batzordeak emandako baimena argitaratuta du Frantziako Ekonomia Ministerioak Estatu Aldizkari Ofizialean.

Korporazioan, Antonio Brufauk 2007ko urriaren 16an, gardentasunari emandako AEMEC saria irabazi zuen, Akziodun Minoritarioen Espainiako Elkartearen eskutik (AEMEC). Sariak gardentasunaren alorrean eta talde interesgarriekiko harremanetan egindako ahalegina baloratzen du; bereziki, akziodun minoritarioei dagokienez.

Repsol YPF-ko Administrazio Kontseiluak abenduaren 19an Criteria CaixaCorp-ek (la Caixa-ko taldekoa) proposatuta eta Izendapenen eta Ordainketen Batzordearen aldeko txostenean oinarrituta, Isidro Fainé eta Juan María Nin konpainiaren kanpoko aholkulari gisa izendatzea onartu du, finantza-erakundearen aurreko kontseilari Jordi Mercader eta Manuel Raventós ordezkatzeko.

2007ko abenduaren 19an Repsol-eko Administrazio Kontseiluak araudia aldatzea erabaki zuen. Hala, Zuzendaritza Egokiaren Kode Bateratuaren gomendioetara egokitu dute. Kontseiluaren araudiaren aldaketak erantzukizun sozial korporatiboaren inguruko konpainiaren konpromisoarekin bat egiten du, gizarte-funtzio honek negozioan duen garrantziaren ildotik, eta akziodunentzat jarduteko modu iraunkorra, gardena eta erantzulea sortzeko. Era berean, egungo Estrategia, Inbertsio eta Lehiakortasun Batzordeari izena aldatu diote, eta orain Estrategia, Inbertsio eta Erantzukizun Sozial Korporatibo Batzordea izango da. Gainera, alor horietako eskumen berriak izango ditu.



Urtarrilaren 15ean Repsol YPF-k 0,50 euro gordin ordaindu zituen akzioko, 2007ko ekitaldiari dagozkion dibidenduko. Zenbateko horrek % 39ko hazkundera izan zuen, aurreko ekitaldiko dibidenduaren ondoan.

Repsol YPF-k urtarrilean Gold Class konpainiaren kalifikazioa jaso zuen. Hala adierazi zuen 2008ko Iraunkortasun Urtekariak. Urtekaria PriceWaterhouseCoopers eta Sustainable Asset Management (SAM) analistek egiten dute; Dow Jones Sustainability Index prestijiosuko analistek, hain zuzen. Repsol, Oil&Gas sektoreko hiru Gold Class konpainien artean dago. Honenbestez, Repsol YPF-ren konpromisoa onartu egin da epe luzera balioaren sortzearen alde egindako lanagatik, bai eta baliabide berriak lortzeko zailtasuna saihesteko burututako jarduerak direla eta.

Otsailaren 21ean Petersen taldeak YPF-ren akzioen % 14,9 erosi zituen. 2.235 milioi dolar ordaindu zituen. Taldeari 300 milioi euroko irabazi garbiak emango dizkio 2008ko emaitzetan. Repsol YPF Taldeak Argentinako sozio handi bati ateak irekitzeko estrategiaren barruan dago eragiketa. hala, konpainiaren jarrera indartuko baita Argentinako hidrokarburoen sektoreko erronken eta aukeren aurrean.

Madril, 2008ko otsailaren 28a

Harremanak inbertitzaileekin

Helbide elektronikoa: INVERSORES@repsolypf.com

Web orria: www.repsolypf.com

Castellana pasealekua 278-280

28046 Madril (Espainia)

Tel.: 34 913 48 55 48

Faxa: 34 913 48 87 77

Gaur, 2008ko otsailak 28, 11:00etan (CET), analistekin eta inbertitzaile instituzionalekin telekonferentzia egingo da. Helburua Repsol YPF, SA etxearen 2007ko laugarren hiru hilabekoaren emaitzen berri ematea izango da, baita 2008-2012 aldirako Plan Estrategikoa aurkeztea ere.

Aurkezpena Madrilen izango da, eta zuzenean jarraitu ahal izango du interesa duen edonork Interneteko Repsol YPF-ren atariaren bitartez (www.repsolypf.com).

Ekitaldi osoa grabatuta eskuragarri izango dute inbertitzaileek eta interesa duen edonork, www.repsolypf.com web orrian hilabetez.

TAULAK

2007KO 4. HIRUHILEKOKO EMAITZAK



REPSOL YPF-REN EMAITZAK, OSAGAI NAGUSIETAN OINARRITUTA

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko kopuruak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA - ABENDUA	
	06KO 4.H	07KO 3.H	07KO 4.H	2006	2007
EBITDA	1.918	2.107	2.192	9.053	8.573
Finantza-kargen aurreko operazio jarraituen emaitza	845	1.420	1.541	5.911	5.808
Karga finantzarioak.....	(95)	(72)	(107)	(482)	(224)
Operazio ez jarraien z.a. emaitza.....	-	-	-	-	-
Zergen eta partaidetutakoaren aurreko emaitza	750	1.348	1.434	5.429	5.584
Mozkinen gaineko zerga	(330)	(580)	(693)	(2.220)	(2.338)
Bateratzeko sozietateen z.o. emaitzen partaidetza	66	21	33	139	109
Epealdiko emaitza	486	789	774	3.348	3.355
ONDOKOARI EGOTZ DAKIOKEEN EMAITZA:					
Kanpoko bazkideak	13	47	34	224	167
SOZIETATE MENPERATZAILEKO AKZIODUNAK	473	742	740	3.124	3.188
Akzioko sozietate menperatzaileari egotzitako emaitza (*)					
* Euro/akzioko	0,39	0,61	0,61	2,56	2,61
* \$/ADR	0,51	0,86	0,89	3,37	3,84

(*) Repsol YPF, SA sozietatearen kapitala 1.220.863.463 akziok osatzen du.

Dolar/euro aldatetak hiruhileko bakoitzaren itxieran:

1,317 dolarrek euroko 06ko 4. Hn
 1,418 dolarrek euroko 07ko 3. Hn
 1,472 dolarrek euroko 07ko 4. Hn

REPSOL YPF-REN EMAITZAK, EZ ERREPIKARIEKIN EGOKITUAK *

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko kopuruak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	2006KO LAUGARREN HIRUHILEKOA			2006KO URTARRILA-ABENDUA		
	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua
Finantza-kargen aurreko operazio jarraituen emaitza	845	129	974	5.911	(135)	5.776
Esplorazioa eta ekoizpena	396	179	575	3.286	342	3.628
Fintzea eta marketina.....	244	37	281	1.855	(43)	1.812
Kimika.....	145	(56)	89	353	(54)	299
Gas naturala eta elektrizitatea	108	(2)	106	469	(71)	398
Korporazioa eta bestelakoak	(48)	(29)	(77)	(52)	(309)	(361)
Karga finantzarioak.....	(95)	-	(95)	(482)	-	(482)
Operazio ez jarraien z.a. emaitza.....	-	-	-	-	-	-
Zergen eta partaidetutakoaren aurreko emaitza	750	129	879	5.429	(135)	5.294
Mozkinen gaineko zerga.....	(330)	(55)	(385)	(2.220)	(9)	(2.229)
Bateratzeko sozietateen z.o. emaitzen partaidetza	66	-	66	139	-	139
Epealdiko emaitza	486	74	560	3.348	(144)	3.204

ONDOKOARI EGOTZ DAKIOKEEN EMAITZA:

Kanpoko bazkideak	13	-	13	224	(112)	112
SOZIEKATE MENPERATZAILEKO AKZIODUNAK	473	74	547	3.124	(32)	3.092

	2007KO HIRUGARREN HIRUHILA			URTARRILA-IRAILA 2007		
	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua
Finantza-kargen aurreko operazio jarraituen emaitza	1.420	(121)	1.299	4.267	(143)	4.125
Esplorazioa eta ekoizpena	791	51	842	2.073	51	2.124
Fintzea eta marketina.....	364	25	389	1.669	21	1.690
Kimika.....	44	-	44	214	-	214
Gas naturala eta elektrizitatea	123	-	123	391	(24)	367
Korporazioa eta bestelakoak	98	(197)	(99)	(80)	(191)	(271)
Karga finantzarioak.....	(72)	-	(72)	(117)	(65)	(182)
Operazio ez jarraien z.a. emaitza.....	-	-	-	-	-	-
Zergen eta partaidetutakoaren aurreko emaitza	1.348	(121)	1.227	4.150	(208)	3.942
Mozkinen gaineko zerga.....	(580)	49	(531)	(1.645)	72	(1.573)
Bateratzeko sozietateen z.o. emaitzen partaidetza	21	-	21	76	(5)	71
Epealdiko emaitza	789	(72)	717	2.581	(141)	2.440

ONDOKOARI EGOTZ DAKIOKEEN EMAITZA:

Kanpoko bazkideak	47	-	47	133	-	133
SOZIEKATE MENPERATZAILEKO AKZIODUNAK	742	(72)	670	2.448	(141)	2.307

	2007KO LAUGARREN HIRUHILEKOA			2007KO URTARRILA-ABENDUA		
	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua
Finantza-kargen aurreko operazio jarraituen emaitza	1.541	(179)	1.362	5.808	(322)	5.486
Esplorazioa eta ekoizpena	895	64	959	2.968	115	3.083
Finketa eta marketina	689	(334)	355	2.358	(313)	2.045
Kimika.....	17	-	17	231	-	231
Gas naturala eta elektrizitatea	125	-	125	516	(24)	492
Korporazioa eta bestelakoak.....	(185)	91	(94)	(265)	(100)	(365)
Karga finantzarioak.....	(107)	-	(107)	(224)	(65)	(289)
Operazio ez jarraien z.a. emaitza.....	-	-	-	-	-	-
Zergen eta partaidetutakoaren aurreko emaitza	1.434	(179)	1.255	5.584	(387)	5.197
Mozkinen gaineko zerga.....	(693)	89	(604)	(2.338)	161	(2.177)
Bateratzeko sozietateen z.o. emaitzen partaidetza	33	-	33	109	(5)	104
Epealdiko emaitza	774	(90)	684	3.355	(231)	3.124

ONDOKOARI EGOTZ DAKIOKEEN EMAITZA:

Kanpoko bazkideak	34	-	34	167	-	167
SOZIEKATE MENPERATZAILEKO AKZIODUNAK	740	(90)	650	3.188	(231)	2.957

OPERAZIO JARRAIEN BIDEZKO SARREREN ANALISIAK
REPSOL YPF-REN KARGA FINANTZARIOEN AURRETIK
JARDUERAKA ETA EREMU GEOGRAFIKOKA

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko kopuruak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA - ABENDUA	
	06KO 4.H	07KO 3.H	07KO 4.H	2006	2007
Esplorazioa eta Ekoizpena	2.478	2.099	2.904	10.454	9.756
Espainia	35	75	76	188	198
ABB	1.422	1.071	1.579	5.902	5.300
Munduko gainerako herrialdeak	1.021	953	1.249	4.364	4.258
Fintzea eta marketina	8.875	12.010	12.120	43.646	45.166
Espainia	5.504	8.333	7.929	30.125	30.231
ABB	1.811	1.899	2.325	7.587	8.154
Munduko gainerako herrialdeak	1.560	1.778	1.866	5.934	6.781
Kimika	1.096	1.360	1.337	4.670	5.256
Espainia	828	1.009	976	3.392	3.870
ABB	200	237	236	845	909
Munduko gainerako herrialdeak	68	114	125	433	477
Gas naturala eta elektrizitatea	841	729	853	3.308	3.154
Korporazioa eta bestelakoak	(1.638)	(2.024)	(2.006)	(6.998)	(7.409)
GUZTIRA	11.652	14.174	15.208	55.080	55.923

OPERAZIO JARRAIEN ARABERAKO EMAITZEN ANALISIAK
REPSOL YPF-REN KARGA FINANTZARIOEN AURRETIK
JARDUERAKA ETA EREMU GEOGRAFIKOKA

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko kopuruak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA - ABENDUA	
	06KO 4.H	07KO 3.H	07KO 4.H	2006	2007
Esplorazioa eta Ekoizpena	396	791	895	3.286	2.968
Espainia	(8)	-	11	33	6
ABB	74	309	460	1.307	1.160
Munduko gainerako herrialdeak	330	482	424	1.946	1.802
Fintzea eta marketina	244	364	689	1.855	2.358
Espainia	252	295	622	1.714	1.804
ABB	(24)	6	(23)	12	242
Munduko gainerako herrialdeak	16	63	90	129	312
Kimika	145	44	17	353	231
Espainia	100	28	(44)	178	52
ABB	49	2	55	165	131
Munduko gainerako herrialdeak	(4)	14	6	10	48
Gas naturala eta elektrizitatea	108	123	125	469	516
Korporazioa eta bestelakoak	(48)	98	(185)	(52)	(265)
GUZTIRA	845	1.420	1.541	5.911	5.808



REPSOL YPF-KO EBITDAREN ANALISIA
JARDUERA ETA EREMU GEOGRAFIKOKA

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko kopuruak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA - ABENDUA	
	06KO 4.H	07KO 3.H	07KO 4.H	2006	2007
Esplorazioa eta Ekoizpena	1.240	1.376	1.556	5.609	5.227
Espainia	-	9	18	58	38
ABB	624	750	846	2.960	2.778
Munduko gainerako herrialdeak	616	617	692	2.591	2.411
Fintzea eta marketina	476	544	486	2.640	2.545
Espainia	394	416	399	2.208	1.793
ABB	38	64	36	210	444
Munduko gainerako herrialdeak	44	64	51	222	308
Kimika	124	99	41	490	402
Espainia	71	67	(29)	250	165
ABB	47	10	61	195	160
Munduko gainerako herrialdeak	6	22	9	45	77
Gas naturala eta elektrizitatea	151	184	192	592	717
Korporazioa eta bestelakoak	(73)	(96)	(83)	(278)	(318)
GUZTIRA	1.918	2.107	2.192	9.053	8.573

REPSOL YPF-REN INBERTSIOEN ANALISIA
JARDUERAKA ETA EREMU GEOGRAFIKOKA

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko kopuruak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA - ABENDUA	
	06KO 4.H	07KO 3.H	07KO 4.H	2006	2007
Esplorazioa eta Ekoizpena	676	702	728	4.062	2.912
Espainia	1	(1)	6	2	11
ABB	297	308	329	1.081	1.123
Munduko gainerako herrialdeak	378	395	393	2.979	1.778
Fintzea eta marketina	474	202	386	966	974
Espainia	335	161	261	614	652
ABB	96	18	88	263	238
Munduko gainerako herrialdeak	43	23	37	89	84
Kimika	94	44	55	222	176
Espainia	43	29	32	125	112
ABB	16	6	8	35	24
Munduko gainerako herrialdeak	35	9	15	62	40
Gas naturala eta elektrizitatea	92	99	430	328	651
Korporazioa eta bestelakoak	64	220	128	159	660
GUZTIRA	1.400	1.267	1.727	5.737	5.373

REPSOL YPF-REN EGOERA BALANTZE KONPARATIBOA

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko kopuruak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	ABENDUA	ABENDUA
	2006	2007
Merkataritza-fondoa	3.422	3.308
Beste aktibo ukiezin batzuk	1.156	1.018
Jabetzak, lantegia eta ekipoa	23.475	23.676
Epe luzerako tresna finantzarioak	1.170	1.512
Bestelako aktibo ez zirkulatzailak	903	1.007
Diferitutako zergagatiko aktiboak	913	1.020
Saltzeko aktiboak	249	80
Merkataritzako aktibo zirkulatzailak	11.069	12.692
Aldi baterako inbertsio finantzarioak eta Diruzaintza	2.844	2.851
AKTIBOA GUZTIRA	45.201	47.164
Ondare garbia guztira		
Sozietate dominatzaileari egotzia	17.433	18.511
Kanpoko bazkideei egotzia	609	651
Arrisku eta gastu zirkulatzailaetarako eta ez zirkulatzailaetarako hornidurak	2.957	2.851
Diferitutako zergagatiko pasiboak	2.707	2.473
Hainbat ekitalditan banatzeko diru-laguntzak eta sarrerak	224	278
Lehentasunezko akzioak	3.445	3.418
Maileguak eta zor finantzario ez zirkulatzailak	7.038	6.647
Ez ohiko zorra errentamendu finantzarioagatik	561	632
Zirkulatzailak ez diren bestelako zorrak	449	634
Maileguak eta zor finantzario zirkulatzailak	1.556	1.501
Merkataritza-hartzekodun zirkulatzailak	8.222	9.568
PASIBOA GUZTIRA	45.201	47.164
ADIERAZLE FINANTZARIOAK ETA RATIOAK:		
ZOR GARBIA	4.396	3.493
ERABILITAKO KAPITALA GUZTIRA	25.883	26.073
ROACE ez errepikarien aurretik	13,8%	12,7%



Repsol YPF Taldea
ESKUDIRU FLUXUEN EGOERA

(Milioika euro)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	Urtarrila - Abendua	
	2006	2007
I. OPERAZIO JARDUERETAKO ESKU-DIRU FLUXUA		
Zergen aurretiko emaitza:	5.344	5.526
Emaitzari egindako egokitzapenak:		
Kanpoko bazkideak	224	167
Baliokidetasun-metodoaren bidez bateratutako sozietateen emaitza	(139)	(109)
Amortizazioak	3.094	3.141
Hornidura hutsak	1.000	377
Komertzialak ez diren aktiboak besterentzean lortutako emaitzak	(253)	(669)
Sortutako finantza-kargak	482	224
Beste egokitzapen batzuk	(699)	(84)
EBITDA	9.053	8.573
Merkataritzako eragiketa-funtsaren egiazko aldakuntza	(460)	(582)
Kobratutako dibidenduak	136	179
Ordaindutako zergak	(2.236)	(2.157)
Helburuetan aplikatutako hornidurak	(455)	(301)
	6.038	5.712
II. INBERTSIOKO JARDUEREN DIRU FLUXUAK		
Inbertsioak higiezinetan eta sozietateetan:		
Aktibo ukiezinak	(156)	(145)
Jabetzak, lantegia eta ekipoa	(5.417)	(4.428)
Partaidetzak erostea bateratutako sozietateetan	(19)	(334)
Beste aktibo ez zirkulatzailerak	(145)	(466)
Inbertsioak, guztira	(5.737)	(5.373)
Desinbertsioak	515	1.279
	(5.222)	(4.094)
III. FINANTZAKETAKO JARDUEREN DIRU FLUXUAK		
Jasotako finantza-zor garbia (kitatua)	179	26
Ordaindutako interes hutsak	(596)	(544)
Diru-laguntzak eta baliogabetutako beste pasibo ez zirkulatzailerak eta beste batzuk	285	89
Banaututako dibidenduak	(825)	(949)
	(957)	(1.378)
ESKUDIRUA ETA ESKUDIRUAREN BALIOKIDEAK EPEALDI HASIERAN	2.647	2.557
Eskudiru-fluxuen saldo garbia (I, II eta III)	(141)	240
Beste aldakuntza batzuk eskudirutan eta antzekoak		
Sozietateak sartzeagatik	2	12
Aldaketa motaren arabera eta beste aldakuntza batzuk	49	(224)
Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak epealdi amaieran	2.557	2.585

TAULAK

2007KO LAUGARREN HIRUHILEKOAREN
NEURRI FISIKO NAGUSIAK

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

ESPLORAZIO ETA EKOIZPEN MAGNITUDEAK

	Unitatea	2006					2007					% Aldakuntza 07 / 06
		1. Hir.	2. Hir.	3. Hir.	4. Hir.	MET.	1. Hir.	2. Hir.	3. Hir.	4. Hir.	MET.	
HIDROKARBUROEN EKOIZPENA	K Bep/eguna	1.130,2	1.126,0	1.156,1	1.101,1	1.128,3	1.084,5	1.065,5	1.025,7	982,4	1.039,2	-7,9
Gordin eta likido ekoizpena	K Bep/eguna	533,7	522,4	529,0	515,9	525,2	511,6	489,1	462,1	468,5	482,7	-8,1
- ABB	K Bep/eguna	369,6	386,2	390,7	378,4	381,3	379,7	372,2	345,1	355,7	363,0	-4,8
- Munduko gainerako herrialdeak	K Bep/eguna	164,1	136,2	138,3	137,4	143,9	131,9	116,9	117,0	112,9	119,6	-16,9
Gas Naturalen ekoizpena	K Bep/eguna	596,5	603,6	627,2	585,2	603,2	572,9	576,4	563,5	513,9	556,5	-7,7
- ABB	K Bep/eguna	406,2	436,2	461,4	416,5	430,2	402,6	403,1	386,1	338,3	382,4	-11,1
- Munduko gainerako herrialdeak	K Bep/eguna	190,3	167,3	165,8	168,8	173,0	170,3	173,3	177,4	175,6	174,2	0,7

KIMIKAKO MAGNITUDEAK

	Unitatea	2006					2007					% Aldakuntza 07 / 06
		1. Hir.	2. Hir.	3. Hir.	4. Hir.	MET.	1. Hir.	2. Hir.	3. Hir.	4. Hir.	MET.	
PETROKIMIKOEN EKOIZ. SALMENTAK	kt	1.168	1.167	1.295	1.149	4.778	1.147	1.206	1.133	1.440	4.926	3,1
Tipoka	kt	246	273	259	157	936	230	257	235	246	968	3,4
-Oinarrizkoak	Kt	82	72	69	62	286	65	68	67	66	265	-7,3
-Espainia	Kt	50	45	41	48	183	46	53	51	45	195	6,8
- ABB	Kt	114	157	149	47	467	119	137	117	134	507	8,6
- Munduko gainerako herrialdeak	Kt	114	157	149	47	467	119	137	117	134	507	8,6
-Deribatuak	kt	922	893	1.035	992	3.842	917	948	898	1.195	3.958	3,0
-Espainia	Kt	338	322	303	312	1.275	325	322	289	331	1.267	-0,6
- ABB	Kt	120	175	306	283	884	184	261	257	462	1.163	31,7
- Munduko gainerako herrialdeak	Kt	464	396	426	397	1.684	408	366	352	402	1.528	-9,3

FINTZE ETA MARKETIN MAGNITUDEAK

	Unitatea	2006					2007					% Aldakuntza 07 / 06
		1. Hir.	2. Hir.	3. Hir.	4. Hir.	MET.	1. Hir.	2. Hir.	3. Hir.	4. Hir.	MET.	
GORDIN PROZESATUA	M tep	14,1	14,1	14,2	13,6	56,1	14,0	15,0	14,8	13,1	56,9	1,4
-Espainia	Mtep	8,7	8,7	8,8	7,9	34,1	8,4	9,0	8,7	7,4	33,6	-1,5
- ABB	Mtep	4,5	4,4	4,5	4,6	18,0	4,6	4,8	4,9	4,7	19,0	5,6
- Munduko gainerako herrialdeak	Mtep	0,9	0,9	1,0	1,2	4,0	1,0	1,1	1,1	1,1	4,3	7,5
PETROLIO PROD. SALMENTA	kt	14.469	14.736	14.576	14.951	58.732	14.502	15.701	15.902	15.362	61.467	4,7
• Espainia salmentak	kt	8.641	8.602	8.515	8.539	34.297	8.315	8.868	8.625	8.600	34.408	0,3
-Berezko Marketina	kt	5.384	5.163	5.486	5.457	21.490	5.276	5.301	5.508	5.542	21.627	0,6
- Produktu garbiak	Kt	4.383	4.232	4.349	4.416	17.380	4.356	4.287	4.460	4.617	17.720	2,0
- Beste produktu batzuk	Kt	1.001	931	1.137	1.041	4.110	920	1.014	1.048	925	3.907	-4,9
-Merkatu Nazionaleko Gainerako Salmentak	kt	1.862	2.018	1.764	1.764	7.408	1.664	1.727	1.706	1.685	6.782	-8,5
- Produktu garbiak	Kt	1.288	1.476	1.212	1.261	5.237	1.159	1.170	1.193	1.204	4.726	-9,8
- Beste produktu batzuk	Kt	574	542	552	503	2.171	505	557	513	481	2.056	-5,3
-Esportazioak	kt	1.395	1.421	1.265	1.318	5.399	1.375	1.840	1.411	1.373	5.999	11,1
- Produktu garbiak	Kt	453	631	417	478	1.979	497	677	406	325	1.905	-3,7
- Beste produktu batzuk	Kt	942	790	848	840	3.420	878	1.163	1.005	1.048	4.094	19,7
• ABB salmentak	kt	3.845	4.044	3.959	4.076	15.924	4.025	4.409	4.801	4.300	17.535	10,1
-Berezko Marketina	kt	2.449	2.603	2.705	2.734	10.491	2.597	2.784	3.329	2.838	11.548	10,1
- Produktu garbiak	Kt	1.977	2.083	2.152	2.250	8.462	2.107	2.230	2.412	2.394	9.143	8,0
- Beste produktu batzuk	Kt	472	520	553	484	2.029	490	554	917	444	2.405	18,5
-Merkatu Nazionaleko Gainerako Salmentak	kt	611	632	675	621	2.539	622	854	824	762	3.062	20,6
- Produktu garbiak	Kt	448	453	490	463	1.854	459	644	602	557	2.262	22,0
- Beste produktu batzuk	Kt	163	179	185	158	685	163	210	222	205	800	16,8
-Esportazioak	kt	785	809	579	721	2.894	806	771	648	700	2.925	1,1
- Produktu garbiak	Kt	410	458	312	332	1.512	299	296	340	210	1.145	-24,3
- Beste produktu batzuk	Kt	375	351	267	389	1.382	507	475	308	490	1.780	28,8
• Munduko gainerako herrialdeetako salmentak	kt	1.983	2.090	2.102	2.336	8.511	2.162	2.424	2.476	2.462	9.524	11,9
-Berezko Marketina	kt	1.313	1.402	1.337	1.635	5.687	1.576	1.709	1.741	1.785	6.811	19,8
- Produktu garbiak	Kt	1.168	1.181	1.192	1.430	4.971	1.415	1.488	1.571	1.601	6.075	22,2
- Beste produktu batzuk	Kt	145	221	145	205	716	161	221	170	184	736	2,8
-Merkatu Nazionaleko Gainerako Salmentak	kt	332	328	347	339	1.346	329	373	335	326	1.363	1,3
- Produktu garbiak	Kt	252	252	282	272	1.058	269	284	272	258	1.083	2,4
- Beste produktu batzuk	Kt	80	76	65	67	288	60	89	63	68	280	-2,8
-Esportazioak	kt	338	360	418	362	1.478	257	342	400	351	1.350	-8,7
- Produktu garbiak	Kt	102	123	109	97	431	51	73	91	79	294	-31,8
- Beste produktu batzuk	Kt	236	237	309	265	1.047	206	269	309	272	1.056	0,9

Merkatu Nazionaleko Gainerako Salmentak: operadore eta bunker salmentak barne.

Esportazioak: Jatorrizko herrialdeetik adierazten dira

	Unitatea	2006					2007					% Aldakuntza 07 / 06
		1. Hir.	2. Hir.	3. Hir.	4. Hir.	MET.	1. Hir.	2. Hir.	3. Hir.	4. Hir.	MET.	
PGL SALMENTAK												
PGL merkaturatua	kt	1.122	843	805	955	3.725	1.059	902	831	1.001	3.793	1,8
- Espainia salmentak	Kt	627	339	269	445	1.680	570	362	274	478	1.684	0,2
ABB salmentak	Kt	239	238	262	223	962	213	237	251	215	916	-4,7
Gainerako Latam salmenta	Kt	186	219	229	224	856	206	241	257	241	945	10,3
Munduko gainerako herrialdeetako salmentak	Kt	71	47	45	64	227	70	62	50	67	248	9,4